

San Telmo Museoak Gabriela Cendoya Bergareche Bilduma osatzeko eta aberasteko erreferentziazko argazki-liburuen lehen edizioak eskuratu ditu

Walker Evansen *American photographs* (1938an lehen aldiz argitaratua), William Klein en *Life is good & Good for you in New York: trance, witness, revels* (1956an argitaratua) eta Robert Franken *Les Américains* (1958an ikusi zuen lehen aldiz argia Frantzian) lanak San Telmo Museoan eskuratu dituen 30 argazki-liburu klasikoen artean daude. Helburua, dagoeneko 2.700 titulu baino gehiago dituen Gabriela Cendoya Bergareche Bilduma osatzea eta aberastea da, museoko liburutegian dagoena eta edonork kontsulta dezakeena.

Gabriela Cendoyaren aholkularitzarekin, museoak Bruce Davidson estatubatuarraren *Subway* eta *East 100th Street* edo Larry Clarken *Tulsa* erosi ditu lehen edizioan. Bildumagilearen esanetan, "Dokumentu garrantzitsuak dira, eta guztiok gertutik ikusi ahal izango ditugu. Hunkigarria da liburu hauen orrialdeak pasatu ahal izatea -kontuz ibili beharrez-, liburutegiko bitxiak dira, eta horrela tratatuko dira".

Made in France Richard Avedonek *Harper's Bazaar*rentzat 50eko hamarkadan egindako lana da erosketa hauen garrantziaren beste adibide bat. Formatu handiko liburu honetan argazkilariaren sekretuak inoiz ez bezala aurkitu ditugu, eskuz idatzitako oharrak barne.

Heinrich Hoffmannen 1938ko propaganda naziaren panfletoak, bestalde, San Telmon ikusi ahal izan genituen obra historikoak dira, eta orain liburutegiko fondoaren parte ere izango dira.

Hona hemen San Telmo Museoak eskuratu dituen argazkigintzaren klasiko handienetako batzuen lehen edizioen zerrenda:

- Evans, Walker . *American Photographs* (1938)
Hoffmann, Heinrich. *Winterhilfwerk-heftchen (minilibros para el auxilio de invierno)* (1938-c.)
Klein, William. *Life is good & Good for you in New York: trance, witness, revels* (1956)
Frank, Robert. *Les Américains* (1958)
Baranowski, Kurt (dir.) . *Die Deutsche Volkpolizei (La Police du peuple allemand)* (1965)
Davidson, Bruce . *East 100th Street* (1970)
Clark, Larry . *Tulsa* (1971)
Ghirri, Luigi . *Kodachrome* (1978)
Callahan, Harry . *Water's Edge* (1980)
Davidson, Bruce . *Subway* (1986)
Guidi, Guido . *Guido Guidi, varianti* (1995)
Blenkinsop, Philip . *The cars that ate Bangkok* (1996)
Vitali, Massimo . *Les plages du Var. Les pieds dans l'eau* (2000)
Avedon, Richard . *Richard Avedon: Made in France* (2001)
Ishiuchi, Miyako . *Mother's* (2002)
Ohtake, Shinto . *UK77, digging my way to London* (2004)
Kranzler, Paul . *Land of milk and honey* (2005)
Johansson, Gerry . *Sverige* (2005)

Calderón, Miguel . *Miguel Calderón* (2007)
Donovan, Wylie ; Prus, Timothy . *Scrapbook* (2009)
Cairns, Antony . *LDN* (2010)
Milach, Rafal . *In the car with R* (2011)
Weber, Donald . *Interrogations* (2011)
Spada, Valerio . *Gomorrah girl* (2011)
Groschen / Messer . *Aus Anderer Sicht = the other view* (2011)
Johansson, Gerry . *Oglunda* (2011)
Milach, Rafal . *Stand-by* (2012)
Johansson, Gerry . *Hattfabriken/Lunckewalde* (2012)
Cairns, Antony . *LPT* (2012)
Milach, Rafal . *House* (2013)
Cairns, Antony . *LDN 3* (2014)

Bestalde, San Telmo Museoak argazki-liburuarekin lotutako programazio egonkorra egiten jarraitzen du, eta jarduerekin bat eginez, GCBCren ohiko konsulta ordutegia zabaldu egiten da eta jardueraren bat programatuta dagoen larunbatetan ere irekitzen da, 10: 00etatik 14: 00etara.

Artista batek bere lana aurkezten duen hitzaldi edota solasaldiek osatzen dute nagusiki programazioa, baina gainera, abuztuan book-jockey bat programatu da Juan Ciresen eskutik, argazki-liburu japoniarren inguruan. Gainera, urte amaieran Gabriela Cendoya Bergareche Bildumari buruzko erakusketa ere antolatu du museoak, Jon Cazenave argazkilari donostiarrekin kontatuko duena, komisario lanetan.

Hondarribian bizi den Gabriela Cendoya Bergareche bildumagile donostiarra San Telmo Museoarekin akordio batera iritsi zen 2017an, eta, horren bidez, bere argazki-liburu bilduma (garai hartzan 2.100 aletan zenbatua) liburutegian utzi zuen, ikusgarritasuna emateko eta interesa duten pertsonei konsulta errazteko. Horren truke, bilduma erosketa berriekin aberasteko eta adierazpen artistiko mota hori hobeto ezagutzeko kalitatezko programazioa garatzeko konpromisoa hartu zuen museoak.

Azken 8-10 urteak funtsezkoak izan dira argazki-liburua edo *photobook* delakoaren bilakaeran. Urte horiek baino lehen argazki-liburu garrantzitsuak zeuden -eta bilduma honek baditu horietako batzuk-, baina azken hamarkada honetan argazki-liburuaren fenomenoak eztanda egin du, autoedizio askorekin eta argitaletxe nazional eta internazional berrien sorrerarekin. Gabriela Cendoya Bergareche bildumak leial islatzen du une berezi hori egile argitalpen eta sormen lanean, eta, gaur egun, aldi horri dagokion osatuenetako bat da.

San Telmo Museoa adquiere primeras ediciones de fotolibros de referencia para complementar y enriquecer la Colección Gabriela Cendoya Bergareche

American photographs de Walker Evans, editado por primera vez en 1938, *Life is good & Good for you in New York: trance, witness, revels*, de William Klein publicado en 1956, y *Les Américains*, de Robert Frank que vio la luz por primera vez en Francia en el año 1958, son tres de los 30 libros clásicos de fotografía que el Museo San Telmo ha adquirido para complementar y enriquecer la Colección de fotolibros Gabriela Cendoya Bergareche (GCBC). Esta colección, que ya suma más de 2.700 títulos, está situada en la biblioteca del museo y es de consulta pública y gratuita.

Con el asesoramiento de Gabriela Cendoya, el museo ha comprado también *Subway* y *East 100th Street* del norteamericano Bruce Davidson, o *Tulsa*, de Larry Clark, en su primera edición. La coleccionista afirma que se trata de “documentos importantes que todos podremos ver de cerca. Es emocionante poder pasar las páginas de estos libros -con precaución por supuesto-, son joyas de biblioteca, y como tal se van a tratar”.

Made in France, trabajo no muy conocido de Richard Avedon para Harper's Bazaar en los años 50, es otro ejemplo de la importancia de estas adquisiciones. En este libro de gran formato descubrimos como nunca hasta ahora los secretos del fotógrafo, con anotaciones a mano incluidas.

Los panfletos de propaganda nazi de Heinrich Hoffmann, de 1938, por su parte, son obras históricas que pudimos ver en San Telmo en la exposición Fenomeno Fotolibro y que ahora pasan también a formar parte del fondo de la biblioteca.

Este es el listado de estas primeras ediciones de algunos de los grandes clásicos de la fotografía que ha adquirido San Telmo Museoa:

- Evans, Walker . *American Photographs* (1938)
Hoffmann, Heinrich. *Winterhilfwerk-heftchen* (*minilibros para el auxilio de invierno*) (1938-c.)
Klein, William. *Life is good & Good for you in New York: trance, witness, revels* (1956)
Frank, Robert. *Les Américains* (1958)
Baranowski, Kurt (dir.) . *Die Deutsche Volkspolizei* (*La Police du peuple allemand*) (1965)
Davidson, Bruce . *East 100th Street* (1970)
Clark, Larry . *Tulsa* (1971)
Ghirri, Luigi . *Kodachrome* (1978)
Callahan, Harry . *Water's Edge* (1980)
Davidson, Bruce . *Subway* (1986)
Guidi, Guido . *Guido Guidi, varianti* (1995)
Blenkinsop, Philip . *The cars that ate Bangkok* (1996)
Vitali, Massimo . *Les plages du Var. Les pieds dans l'eau* (2000)
Avedon, Richard . *Richard Avedon: Made in France* (2001)

Ishiuchi, Miyako . *Mother's* (2002)
Ohtake, Shinto . *UK77, digging my way to London* (2004)
Kranzler, Paul . *Land of milk and honey* (2005)
Johansson, Gerry . *Sverige* (2005)
Calderón, Miguel . *Miguel Calderón* (2007)
Donovan, Wylie ; Prus, Timothy . *Scrapbook* (2009)
Cairns, Antony . *LDN* (2010)
Milach, Rafal . *In the car with R* (2011)
Weber, Donald . *Interrogations* (2011)
Spada, Valerio . *Gomorrah girl* (2011)
Groschen / Messer . *Aus Anderer Sicht = the other view* (2011)
Johansson, Gerry . *Oglunda* (2011)
Milach, Rafal . *Stand-by* (2012)
Johansson, Gerry . *Hattfabriken/Lunckewalde* (2012)
Cairns, Antony . *LPT* (2012)
Milach, Rafal . *House* (2013)
Cairns, Antony . *LDN 3* (2014)

Por otro parte, San Telmo Museoa sigue realizando una programación estable relacionada con el fotolibro, y coincidiendo con las actividades, el horario de consulta habitual de la GCBC se amplía y se abre también los sábados en los que hay programada alguna actividad, de 10:00 a 14:00 horas.

La programación se compone principalmente de **charlas-coloquio** en las que un/a artista presenta su trabajo, pero además, se ha programado un **book-jockey** en agosto a cargo de Juan Cires, sobre el fotolibro japonés. Además, a finales de año se ha programado una **exposición** sobre la Gabriela Cendoya Bergareche Collection, comisariada por el fotógrafo donostiarra Jon Cazenave.

La colecciónista donostiarra residente en Hondarribia Gabriela Cendoya Bergareche llegó a un acuerdo con el Museo San Telmo en el 2017 por el cual depositó su colección de fotolibros (entonces cuantificada en unos 2.100 ejemplares) en la biblioteca para hacerla más visible y facilitar la consulta de las personas interesadas en cualquiera de los volúmenes. A cambio, el museo se comprometió a enriquecer la colección con nuevas adquisiciones y a desarrollar una programación de calidad encaminada a favorecer el conocimiento de este tipo de expresión artística.

Los últimos 8-10 años han sido clave en la evolución del llamado fotolibro o *photobook*. Antes de estos años ya existían importantes libros de fotografía -y esta colección dispone de algunos de ellos-, pero en esta última década se ha producido una explosión del fenómeno del fotolibro, con muchas autoediciones y creación de nuevas editoriales nacionales e internacionales. La colección Gabriela Cendoya Bergareche refleja de modo fiel este momento especial en el trabajo editorial y creativo de autor, y actualmente es una de las más completas referidas a este periodo.